

BIZIKLIK!

Kanalak

Zer egingo dugu gure produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

- **Komunikazio-kanalak:** bezeroen arretarako telefonoa gure sare sozialetan ipiniko dugu, baita Biziklik!-eko iragarki guztietan ere. Gainera, sare sozialetan gure bezeroekin komunikatzeko oso aktibo egongo gara, eta gurekin harremanetan jar daitezten erraztasun asko eskainiko dizkiegu: zalantzak argitzeko galdera txanda, iruzkinak erantzun, banakako mezuak erantzun...
- **Banaketa-kanalak:** Bizikleta estatikoak zuzenean bidaliko ditugu gure biltegitik eskatutako helmugara. Hauek kamioi handietan joango dira errepidez. Bizikletak garraiatzeko, garraio enpresa bat beharko dugu. Kamioi horiek behar adina handiak izan beharko dute bizikleta kantitate handia garraiatzeko, eta, era berean, dirua aurrezteko. Garraioan zehar produktua babesteko, kartoi berrerabilgarriz egindako kutxa batean sartuko genuke. Produktua kalitate bikainarekin heldu dadin, material birziklagarriz estalduko dugu kutxaren barnealdea.
- **Salmenta-kanalak:** eskaerak online egingo dira. Horretarako, webgune bat sortuko dugu, eta ahalik eta erraztasun gehienak eskainiko dizkiogu bezeroari produktua erosteko prozesua erraza eta azkarra izateko. Horrez gain, eskaerak telefono bidez egiteko aukera eskainiko dugu ere, webgunea erabiltzeko edozein arazo balego erosteko aukera eskaintzeko asmoz.

